



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Familia guztiarentzako gabon-ekintzak Enkarterrietako Museoan

- Danetariko ekintzak eskaintzen ditu Abellanedan kokatutako Enkarterrietako Museoak: ermitea hatxean zulatua eginik daukan meatzaldeko auzo bat ezagutu, erakusketa bat ikusi, sua eta horma-margoak historiaurreko erara egiten ikasi, eleiza erromanikoa eregi eta erdi aroko armadura baten barrutik zehar mundua ikusi.

Bilbon, 2012ko abenduaren 12an.

"ZorionEM eta enkarteriON" izenburupean, Enkarterrietako Museoak (Abellaneda) zenbait ekintza antolatu ditu Gabonetarako, familiako guztiek alkarregaz batera gozatzeko. Abellanedako Batzarretxean dagoan kultur zentroak "menu" berezia atondu dau aurtengo Gabonetako oporraldirako, kulturea eta dibertsinoa buztartuz. Gura dabenek Ismael Fidalgo margolariaren bizitzaren eta lanaren inguruko erakusketea bisitatu leikie, eta iraganera gidatutako bisitaldia egin meatzaldeko antxinako auzo bateko bizitza zelakoa zan ezagutzeko. Basoetatik, trenbideetatik eta meagintzaren aztarnetatik horrenbeste mugitu gura ez dabenek aukerea dabe Museoaren barrualdean beste ekintza didaktiko baten parte hartzeko, umei zuzendutako Historiaurreko eta Erdi Aroko tailerretan nonbait.

Martxan jarriko dan lehenengo ekintza Ismael Fidalgoren jatorriak ezagutzeko prestatutakoa da; Trapagaraneko artista hori, "meatzetako margolaria" ezizenez ezagutua zan. Bizkaiko Batzar Nagusia eta Museoak datorren domekarako, abenduaren 16rako, bisitaldi gidatua antolatu dau artistaren jaiotzelekutik hurrean dagoan Sopuertako Alen meatzaren ingurutik. Meatzari auzoaren aztarnak ikusi ahal izango dira, eta antxina trenbidea zan lekutik oinez joanda hatxean zulatuta egindako Santa Luziaren mea-ermitara helduko dira bisitariak. Ostein, Enkarterrietako Museoan dagoan Ismael Fidalgoren erakustea ikusi ahal izango dabe partehartzaileek.

Abenduaren 24, 26, 27, 28 eta 31n eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an Museoak umei zuzendutako Historiaurreko eta Erdi Aroko tailerrak eskaintzen ditu. Lehenengoan, aita-amak umeekin batera (8tik 12 urtera bitartekoak) horma-irudiak egingo dabez, edo sua edo harrizko lanabesak. Pigmentu naturalak, ardaia, silexa edo errekarriak izango dira horretarako erabiliko dabezanak, gure arbasorik antxinakoen bizimoduan murgiltzeko balioko deusienak. Erdi Aroko tailerlean, handiek eta txikiek (6tik 12 urtera bitartekoak) erdi aroko idazlekuan eskuizkribuak egingo dabez eta garai horretakoak ezagutuko dabez Jauntxoan, antxinako torretxe eta gotorlekuen jabeen, bizipenen bitartez. Eleiza erromanikoa eregiteko astia be izango dabe, edo idazkera gotikoaren kakoak ezagutzeko, edo puntu erdiko arku bat egiteko, edo erdi aroko armadura bat aldean jarteko.

Ekimen guztiok doan dira eta beharrezkoa da izena emotea aldeazurretik museoaren webgunean (www.enkarterrimuseoa.net) edo 94 650 44 88 telefonoan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Actividades navideñas para toda la familia en el Museo de Encartaciones

- Desde conocer un antiguo barrio minero con su ermita excavada en la propia roca, hasta visitar la exposición sobre la vida y obra de Ismael Fidalgo, hacer fuego o realizar pinturas rupestres como lo hacían nuestros antepasados, construir una iglesia románica o ver el mundo a través de una armadura medieval, son algunas de las actividades que propone el museo encartado de Abellaneda para estas fiestas.

Bilbao, a 12 de diciembre de 2012.

Bajo el título "ZorionEM eta enkarterriON", el Museo de Las Encartaciones (Abellaneda) ha organizado una serie de actividades navideñas pensadas para pasar un buen rato en familia. El centro cultural situado en la antigua Casa de Juntas de Abellaneda ha preparado un "menú" especial para estas fiestas en donde la cultura ligará con la diversión. Las personas que se animen podrán visitar la exposición sobre la vida y obra del pintor Ismael Fidalgo y hacer un recorrido guiado al pasado para conocer cómo era la vida en un antiguo barrio minero. Para los que no se quieran mover tanto entre bosques, vías férreas y vestigios de minería, existen otras alternativas didácticas en el interior del museo como son los talleres infantiles sobre la Prehistoria y la Edad Media.

La primera actividad en ponerse en marcha será la planeada para conocer los orígenes de Ismael Fidalgo, el artista de Trapagaran conocido como el "pintor de las minas". Este próximo domingo, día 16, el museo propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia ha organizado una visita guiada al entorno de la mina Alen (Sopuerta) cercano al lugar de nacimiento del artista encartado. Se verán los restos del barrio minero, se pasará por el antiguo trazado del ferrocarril y por el entorno de las minas hasta llegar a la sorprendente ermita minera de Santa Lucía, excavada en la roca. Posteriormente, se visitará la exposición de Ismael Fidalgo en el Museo de Las Encartaciones.

Para los días 24, 26, 27, 28 y 31 de diciembre, y 2, 3 y 4 de enero, el museo encartado abrirá a las familias sus conocidos talleres de Prehistoria y de Edad Media. En el primero, los padres realizarán junto a sus hijos (con edades comprendidas entre los 8 y los 12 años) pintura rupestre, harán fuego o trabajarán la piedra. Pigmento natural, yesca, pirita, sílex o cantos rodados, serán la mezcla de elementos a utilizar para sumergirse en el modo de vida de nuestros antepasados más lejanos. En el taller de Edad Media, los mayores escribirán junto a sus hijos (para edades de 6 a 12 años) en el escritorio medieval y conocerán esta lejana época a través de las vivencias de los "Jauntxos", los antiguos dueños de torres y fortificaciones. Habrá tiempo para construir una iglesia románica, conocer las claves de la escritura gótica, fabricar un arco de medio punto o experimentar la sensación de portar una armadura medieval.

Todas las actividades son gratuitas y es necesaria la inscripción previa en la página web del museo (www.enkarterrimuseoa.net) o en el teléfono 94 650 44 88.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA